

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

308 - 2022ko ABENDUA

AMESTUZ
EGINEN DUTE HEGAN!



Lan eskaintza!!!

Mailope Aldizkariko kazetari izan nahi duzu?

Pertsona euskalduna behar dugu Mailope Aldizkariko kazetari taldean aritzeko. Hilabetezko edukiak proposatzea eta sortzea izanen da bere eginkizuna.

Kontuan hartuko dira:

- Araitz, Betelu, Lekunberri edo Larraungoa izatea edota eskualdea eta herritarrak ezagutzea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Mailope proiektuan jarduteko gogoia.
- Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) edo euskara maila egiaztatzen duen titulu baliokidea izatea.
- Komunikazio arloan edo kulturgintzan esperientzia izatea edota horiekin lotutako ikasketak izatea.
- Gidabaimena eta autoa.

Interesa izanez gero, bidali zure hautagaitza proposamena mailope@labrit.net helbidera eta zurekin harremanetan jarriko gara.



2

POSTONTZIA



✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?

✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteryen bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: mailope@labrit.net / 638 652 339.

 **NEKAZARI, S.L.**
 **Kubota**
STIHL
ANTONIO CARRARO
Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com


**AURRERA
TABERNA**
ARALAR, 15
948 60 47 24

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza

BIDEGOXO JATETXEA
Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak
Usabal Kiroldetgia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

 **MAITE
HARATEGIA**

**BERTAKO
HARAGIA**
Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldatutako
platerak.
Etxera eramateko
zerbiziua ere
eskeintzen dizugu.
Antigua kalea 7
31890 BETELU
948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Ali, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Maillope Kultur Elkartea.

L.G.: NA 719/93

Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/maillopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandezena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK:

Igor zabaleta, Maider Agirrebarrena, Maskarada, Larraungo Udala, Arantxa Mikeo, Rober Gutierrez, Bertsozale Elkartea, Araxes Herri Kirol Taldea, Larraungo Pilota Elkartea, Patxi Miranda, Aralar Zaindu Dezagun, Zari Cobain, Beñat Jauregi, Labrit.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - maillope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:

Oier Zuñiga

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

LABRIT
MULTIMEDIA

04

KUXKUXEAN Abenduko zorion agurrak.

8

ELKARRIZKETA



Igor Zabaleta

12

BATZARRE

14

ERREPORTAJEA



Araxes Ikas Komunitatea

18

KULTURA Gaintzako festak-Printza gaua-Euskaraldia

21

KIROLA

22

ELKARRIZKETA

Patxi Miranda KUDEA-GO



24

ERREPORTAJEA Suizidioaz

27

MAITE DITUT MAITE Ttutture mendia

28

PLAZATIK PLAZARA Gasbidearen ibilbidea

31

AGENDA



Alain Castrillo Cruz
Abenduaren 1ean, 17 urte
Zorionak, Alain!!
Etorri Atallura ospatzera!



Eneko Otamendi Irazoki (Betelu)

Abenduaren 10ean, 8 urte
Zorionak, Txapeldun!
Ongi pasa zure egunean eta muxu handi bat etxekoan partetik.



Manex Mitxelorena Eskamendi

Abenduaren 13an, 6 urte beteko ditu gure mutilak.
Segi horren alai eta pozik. Muxu handi bat etxekoan partez.


Uxue Azpiroz Arrizurieta

Abenduaren 26an, urte 1
Zorionak gure etxeko printzesa txikia!!
Goxo-goxo ospatuko dugu zure urtebetetze eguna! Asko maite zaituen familiaren partez! Muxu pottolo bat!



Enaitz Iriarte Olan

Abenduaren 19an, 8 urte
ZORIONAK, ENAITZ!!!! Ongi pasa zure eguna, segi horrela. Muxu handi bat etxeko guztin partez.



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa

Betelu 31890

948 513 083

696 732 290

aitzberri@hotmail.com

Ile-apaindegia

Estetika

Presoterapia

Podologia

Laser-depilazioa eta

depilazio elektrikoa

Dietista-nutrizionista

Mikropigmentazioa ezpainetan

Mikroblading bekainetan



INDARKERIA MATXISTAREN KONTRA

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna izan zen azaroaren 25a. Euskal Herriko Mugimendu Feministak kalera ateratzeko deia egin zuen, eta gure ibarreen ere izan ziren mobilizazioak: Lekunberrin goizean egin zuten, eta Araitzen eta Larraunen, berriz, arratsaldean. Aurten, ofizialki, hiru emakume erail dituzte Euskal Herrian. Nafarroan, Tuteran, Sara Pina bere bikotekideak erail zuen urtarrilean; emakumeak 38 urte zituen.



MANKOMUNITATEA HONDAKINAK MURRIZTEN

Araxes Garaiko Mankomunitateak hainbat ekintza eta kanpaina egin ditu 2022an hondakinek ingurumenean sortzen duten eragina arintzeko: hondakinen prebentzioa bultzatzeko kanpainak, biohondakinen birziklapena sustatzekoak, etxean konposta egiten dutenei laguntza ematekoak eta, oro har, gainerako hiri-hondakinen kudeaketa hobetzekoak. Aurten, 15.000 euro baino gehiago inbertitu ditu horretarako, eta diru gehiena 2022ko Hondakinen Urteko Funtsatik lortu du.



TOKIKOMEK MAILOPE SARITU DU!

Tokikom euskarazko tokiko komunikabideen sareak 10 urte bete ditu, eta, elkarrekin egindako bidea ospatzeko eta aldarrikatzeke, bere bazkide guztiak saritu ditu aurten, baita Mailope ere. Hain zuzen, "proiektuari jarraitutasuna emateko gazteak erakarri eta errelebo generazionala lortzeagatik" eman dio saria. Sari hau Mailope osatzen duzuen kolaboratzaile, irakurle, bazkide eta kide guztiena ere bada; beraz, zorionak denoi!

► Amets Soroa (Lekunberri)



*Abenduaren sarrerarekin
heldu dira lehen hotzak
Azkenerako gorde ditugu
tirante ta galtza motzak.
Olentzero ta Mari Domingi
irakurri haurren hitzak
Hasi prestatzen ospakizunak
hurbil irri urrun gaitzak.
Nahi beste turroi jan baina ondoren
garbitu mesedez hortzak.*



Doinua: Bazkalosteko kafea (Mikel Urdangarin) Hurrengoa: Leire Lopetegi (Betelu)

SAREKADA

1977an, Iruñeko apezgaitegian, UBI Unibertsitatera Bideratutako Ikasturtea egiten ari nintzen, Aralarko San Migel izeneko ikastetxean. Han, gehienak, Nafarroako hainbat herritako ikasleak ginen, mutilak, noski, Iruñerriko bakan batzuk joaten baziren ere, eta, irakasle eta langileen artean, denetarik genituen, hau da, erlijiosoak (apezak, mojak) eta laikoak -gizonezkoak eta emakumezkoak-, haien artean, baita gizon militar izandako bat ere.

Haiek oso urte asaldagarriak eta aztoratuak ziren Iruñean, Hego Euskal Herriko gainerako hiri gehienetan bezalaxe. Ezin dugu ahaztu, Ferroleko Francisco Franco Bahamonde diktadore eta faxista ankerra hil zenetik, urte bat eta bi hilabete pasatxo baino ez zirela igaro oraindik, eta, horren ondorioz, Iruñeko auzo askotan, eta baita Iruñerriko beste hiri eta herri ugarian ere, sarritan gertatzen zirela langileen kale agerraldiak, elkarretaratzeak, polizien oldarraldiak, borra ukaldiak, salaketak, atxiloketak, tratu txarrak, torturak, isunak eta abar, eta abar.

Horrekin batera, jakinarazi beharra dago, gure ikastetxe hura, oso irekia, permisiboa eta aurrerakoa zela garai hartarako; askatasun dezentekoa, alegia. Hori horrela, konparazio batera, gogoratzen dut bazkaldu ondoren, bosgarren mailakoak eta goragokoak, atera ahal ginela ikastetxetik hirira joateko, nahi izanez gero, jakina, eta batek baino gehiagok, gustura asko aprobetxatzen zuten aukera eder hura, beren burua egurasteko; nik, ez, noski, oinez ibiltzeko neuzkan zailtasunengatik. Baina, arratsaldeko eskolak bukatutakoan ere, egokiera berbera zegoen nahi zuten guztientzat.

Gauzak hala, 1977ko ilbeltzaren 25aren inguruan, nik oraintxe bertan ez dut zehazki gogoratzen nola zegoen Iruñeko egoera soziopolitikoak, baina ziurren da, egun hartan ere, segur aski, mugida bat baino gehiago izanen zirela hirian zehar. Kontua zera da, ilunabar aldean, gure mailako ikasle gehienok, logeletako ondoko korridorean hizketan ginenean, halako batean, ikusi genuen eskaileretan gora lasterka zetozela gure ikaskide batzuk garrasika, eta honako hauxe hasi ziren oihukatzen: <kontuz, kontuz!, grisak ikastetxe barrura sartu eta gure bila heldu dituk ziztu bizian! Mugil, ezkuta zaitezte azkar!>.

Eta halaxe gertatu zen, izan ere, apezgaitegian Espainiako polizia mordo handi bat sartu eta guregana etorri ziren lasterka, basatien moduan. Gu, noski, ahal bezala saiatu ginen ezkutatzeko, norbera bere logelan. Grisak zalaparta batean eta garrasi eginez sartu ziren gure lotokietako korridorera, eskailerak igotakoan. Horretarako, sarrerako atea kolpe handi batez ireki zuten, ostiko bortitz bat emanda; gu, ordurako, izaturik, ihes eginda geunden.

Logela bakoitzak ohatzea, ikasmahaia, armairua, konketa, ispilua eta leioa zeuzkan; askoz gauza gehiagorik ez. Komunik, uste dut ez zeukatela, oso ongi gogoratzen ez badut ere. Loleku haietan, gure abizenen ordena alfabetikoaren arabera geunden sailkatuta, baina, ni oinez, zailtasun handiarekin ibiltzen nintzenez gero, lehenengo logelan jarrarazi ninduten apezek, ibiltzerakoan metro gutxiago eduki nitzan.

Anabasa larri hartan, zera gertatu zen: ni beste bi lagunekin, nire logelan zain eta beldurrak airean nengoenean, bat-batean, lotokiko atean kolpe lehorrat bat eta dardara ikaragarria entzun genituen, izan ere, kanpoko atea nire logelako atean egundoko takateko latza jo eta zabalik gelditu zen, kanpokoak, jakina, baina nirekoa, ordea, itxita, eta, horrela nire logelako atea kamuflatua bezala gelditu zen grisentzat, hau da, ez ziren ohartu ere egin hantxe beste loleku bat gehiago zegoela, eta, hari esker, nirekin zeuden bi lagunak eta hirurok, deus ere egin gabe, erabat libratu ginen istilu gorri hartatik.

Esan bezala, poliziak iritsi baino lehentxeago, mutil bakoitza non edo han saiatu zen ezkutatzeko, gehienak, logeletan, baina komunetan ere, bat edo beste kukutu zen. Bat, grisak bere logelara sartu zirenean, ohatze azpian, pultsuan, hankak altxatuta egonda, libratu omen zen; beste bat, ikasmahaiari buelta emanda eta han sarturik geratuta; beste bat, ordea, armairuko arropa artean gordeta eta abar.

Beste mutil batzuek, aitzitik, beste leku batzuetara jo behar izan zuten ezkutatzeko, alegia, dirudienez, poliziak sartu zirenean, aipaturiko mutilak, ikastetxeko sarrera nagusiaren inguruan omen zebiltzan, eta, horrexegatik, beste ezkutaleku batzuk aukeratu behar izan zituzten, presaka eta lasterka. Batzuek, eraikinaren sarrerako dorrerantz jo zuten izualdi larri hartan, hots, gurutze ospetsura, eta, hantxe, nola edo hala, lortu omen zuten iskin egitea polizia kankailuei. Beste ikasle batzuek, aldiz, ikasgela nagusiko oholtza azpian aurkitu omen zuten gordelekua, haietako mutil bat handia eta indartsua izaki, oholtza altxatu eta han sartu omen ziren banaka batzuk. Eta, segur aski, izanen ziren kasu bitxi gehiago ere, nik inoiz jakin izan ez nituenak.

Antza denez, ilunabar hartan, gure ikastetxe aurreko semaforo gorrian, polizien furgoi batzuk geldirik zeudenean, gure ikaskide batzuek, irain batzuk edota objekturen bat bota omen zizkieten, eta haiexek izan behar omen zuten grisen su piztailea, jokatu zuten moduan jokatzen.

Horren guztiaren ondorioa zera izan zen: ikasgela bateko mutil guztiak eraman zituzten polizia etxera, baina ez beraiek bakarrik, ez, baizik eta baita bizpahiru apez eta irakasle laikoren bat ere. Mutil haietako batek, komisarian bete omen zituen 18 urteak, gau hartan, Espainiako polizia atsegin eta goxo haien konpainia erakargarrian; a zer balentria, e? Biharamunean, denak aske utzi omen zituzten, baina ez dakidana da, ikastetxeari isunen bat edo beste iritsi ote zitzaion ala ez, horixe ez dakit.

Orain, denborak ematen duen perspektibatik begiratuta, batzuetan pentsatzen dut ea zer gertatuko zatekeen, grisak izeneko espainiar poliziak nire logelara sartu izan balira, alegia, emanen ote zidaten denbora azaltzeko ezin nintzela ibili oinez ongi? Sinistuko ote zidaten? Eta, sinistu ezean, emanen ote zidaten nik behar nuen denbora guztia, bastoia eta makila tolesgarria hartu, jaiki, nire abiaduran ibili eta eskaileretan behera jaisteko? Ala, agian hasiko ote zitzaizkidan, horren gustukoak zituzten jokamoldeak erakusten, hau da, bultzaka, kolpeka eta irainka? Auskalo!, orain berandu da jakiteko, baina nire sen onak dio ez litzatekeela batere harrigarria izanen horrela jokatzeko. Zer egingen diogu, ba? Jakina da esaera zaharrek diotena, hots, <harriak harrikumerik ez> edo <ez joan arrantzura larrera> edota <ez joan haltzagana fruitu bila> edo <ez eskatu zumarrari garia>.

Xanti Begiristain Madotz.
Auritz. 2021-03-12.

URRIAREN 8AN BERTAN IZAN GINEN, URTARRILAREN 7AN ERE BERTAN IZANGO GARA!

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkizuegu eta zorionak! Zorionak mendialdea. Batetik, urte hauetan guztietan euskal presoek euskal herriratzea egia bihurtzen hasi dadin egindako lan guztiagatik, eta bestetik, Sarek antolatutako ekimen eta mobilizazioetan parte hartzeagatik. Zuei esker iritsi gara honaino.

Urriaren 8an Donostian, milaka eta milaka herritar batu ginen *Izan Bidea* dinamikaren baitako azken kilometroak osatu eta eginiko bideak ekarritako lorpenak balioan jartzeko. Mendialdeko herri guztietatik ere, dozenaka lagun joan ginen lehenik Donostiako kaleak koloreztatzea eta ondoren Ilunbeko jaialdira. Aldarria eta festa batuz, bultzada itzela eman genion guztion artean aurrera begira egiteke dugun bideari.

Orain, erronka berri baten aurrean gaude! Urriaren 8an bildutako indarrak hartu eta urtarrilaren 7ra begira jarriak gara. Izan ere, urte garrantzitsu baten hasieran kokatzen da aurtengo urtarrileko mobilizazioa; euskal presoek gehiengo zabala Euskal Herrian delarik amaituko dugu urtea. Egoera berri honek, poza sorrarazten digu eta baita, herri aktibazioaren eta kale aldarrikapenaren garrantzia eta balioa erakutsi ere. Horregatik, eta oraindik bidea egiteke geratzen zaigulako, urtarrilaren 7an Bilbon izatera gonbidatu nahi ditugu mendialdeko herritar guztiak.

Bi urteren ostean, aurten berriro ere Bilbon elkartuko gara guztiok, oraindik ere bidea baitugu egiteke. Euskal herriratzeak urrats garrantzitsua izan arren, euskal presoek oraindik ere etxeratze prozesua gauzatzeko traba eta oztopo ugari jasaten dituzte salbuespen legediaren ondorioz. Horren adibide dira gradu progresioen aurrean fiskaltza eta Audientzia Nazionala izaten ari diren jarrera atzerakoia. Hori hala, lanean jarraitzeko beharra ezinbestekoa dela uste dugu, euskal presoek ere dagokien etxeratze prozesua normaltasunez gauzatzeko unea baita.

Erronka berri honi guztiok batera ekin nahi diogu eta mendialdean ere horretarako lanean jarraituko dugu datozen aste eta hilabeteetan. Gutun honen bitartez, araztar eta larraundar guztioi gurekin bat egin eta herrian antolatuko ditugun ekimenetan parte hartzeko deia luzatu nahi dizuegu, eta, nola ez, urtarrilaren 7an Bilboko kaleak betetzeko gonbita luzatu.

Araitz-Beteluko Sare

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi
mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.

“Zure etxean edota enpresan sortutako energia aprobetxatzeko, ohiturak aldatu behar dira”

Argindarraren prezioa igo izanaren ondorioz, besteak beste, geroz eta gehiagok erabakitzen dute beren etxean edota enpresan eguzki plakak jartzea energia fotovoltaikoa sortzeko eta horren bidez hornitzeko. Lekunberriko Igor Zabaleta argiketaria horiek instalatzen aritzen da. Nabarmendu du garrantzitsua dela sortzen den energiari ahalik eta etekin handiena ateratzea, konpainia elektrikoaren esku gera ez dadin.

Zertan datza zure lana?

Ni argiketaria naiz. Nire lana ez da bakarrik instalazio fotovoltaikoak egitea, baina orain era horretako instalazioek izan duten gorakada ikusita, guk ere horiekin lan egiten ikasi nahi genuen, eta mundu horretan sartu gara pixka bat. Autonomia naiz, ez dut enpresa zehatz batentzat lan egiten. Instalazioak Iruñeko enpresa bati erosten dizkiogu, eta guk gero instalatu egiten ditugu. Enpresa horrek instalazioa jarriko den etxe edota enpresako azterketa txiki bat egiten du, jakiteko zer behar duen, eta beharrezko arabera esaten dizute zenbat eguzki panel jarri eta zer motatakoak diren egokienak zuzentzat. Izan ere, enpresek eta etxebizitzek izaten dituzten beharrak oso desberdinak izaten dira.

“Txinatik ekartzen da materiala. Espainian ere hasi dira enpresa batzuk panelak ekoizten, baina gutxi”

Instalazio fotovoltaikoak igotzen ari direla esan duzu, eta gero eta eskaera gehiago daudela. Noiztik hasi da joera hori?

Orain dela bi urte inguru hasi zen. Aspaldi hasi ziren eguzki plakak jartzen, baina orain boladan dago. Orain dela zazpi urte inguru, Espainiako Gobernuak Eguzkiaren zerga onartu zuen, eta nik uste horrek atzera bota zituela herritar asko. Baina ordu hartan, inguruan baziren panelak egiten dituzten fabrikak, Altsasun esaterako; hark porrot egin zuen, eta orain Txinatik ekartzen da materiala. Espainian ere hasi dira enpresa batzuk panelak ekoizten, baina, normalean, Txinatik ekartzen da dena.

Zein kasutan da handiagoa joera, etxebizitzetan kasuan ala enpresen kasuan?

Denetan. Bai enpresetan, bai partikularren etxebizitzetan ari gara instalatzen eguzki panelak. Gu bi langile garenez, normalean enpresa txikitik edota etxebizitzetan aritzen gara lanean, eta ez hainbeste enpresa handietan.

Hemen inguruan ere egin dituzue instalazioak?

Bai, etxebizitzetan gehienbat. Argindarraren prezioa asko garestitu denez, geroz eta jende gehiagok erabakitzen du eguzki panelak instalatzea etxean eta enpresan.



Batzuen kasuan, baina, ez da hain erraza, tabernen kasuan adibidez; izan ere, eraikin baten beheko solairuan daukate negozioa, eta teilatua ez da haiena bakarrik.

Teilatuan instalatzen dira beti panelak?

Ez, beti ez. Lurrean ere jar daitezke, eta horrelakoak ere egin izan ditugu, metalezko euskarri batzuk edo hormigoizko bloke batzuk erabilita. Posible da hala egitea, baina normalena izaten da teilatuan jartzea.

Inbertsio handia da? Kontentsatzen du?

Inbertsio nahiko handia da, horrelako sistema bat instalatzeak gastua baitu, baina diru laguntzak ere badaude, Nafarroako Gobernuak ematen dituen batzuk adibidez. Ikusiko da Europak ere diru laguntzak emango dituen... Diru laguntza horiek izanda jende gehiago animatzen da pausoa ematera. Gastua, gainera, asko aldatzen da bateriak jartzen badituzu ala ez.

Energia gordetzeko bateriak diozu?

Bai, eta horiek oso garestiak dira. Litiozkoak izaten dira, eta diru asko balio dute; horrek igotzen du inbertsioa askotan. Plakak, berez, ez dute hainbeste balio. Inbertsorea ere ez da merkea, baina hori ezinbestekoa da instalazioak funtzionatu dezan.

Nola funtzionatzen du, bada, instalazioak?

Eguzki izpiak plakara joaten dira, eta fotoiak plakan sartzean elektro bihurtzen dira. Elektro horiek, prozesu baten bidez, korrante zuzena esaten zaiona bihurtzen



Plakak teilatuan jartzea da ohikoena. Arg: Igor Zabaleta

dute, eta korrante zuzena barruko instalaziora iristen da. Inbertsoreak egiten duena da korrante zuzen hori korrante alferno bihurtu, argindarra izateko.

“Zure etxean edota enpresan sortutako energia gastatzen ez baduzu, sarera doa zuzenean, eta enpresa elektrikoek hartzen dute, ondoren saltzeko”

Eta zer gertatzen da bateriak jartzen ez badira? Sortzen duzun energia ez baduzu erabiltzen, galdu egiten duzu?

Negozioa konpainia elektrikoentzat da. Zure etxean edota enpresan sortutako energia gastatzen ez baduzu, sarera doa zuzenean, eta enpresa elektrikoek hartzen dute, ondoren saltzeko. Hori ez da komeni: hobereena da zuk sortzen duzun energia zuk aprobetxatzea. Bateriekin egin daiteke, adibidez,



Instalazio bat. Arg: Igor Zabaleta

eta, orain, aerotermin bidezko berokuntza instalatzen hasi dira asko: plakek ekoizten duten argindarra etxea berotzeko erabiltzen du sistema horrek. Hala, energia aprobetxatzen da, eta ez da sarera joaten, eta ez da konpainien esku geratzen.

Gainera, aerotermin sistema hori duten tokietan ez dute gasa behar, dena elektrikoa izango baitute. Gasa ez behar izatea ere bada abantaila bat, zergak konpainia bati bakarrik ordaindu behar dizkiozulako, kasu honetan, konpainia elektrikoari.

Zerk kontsumitzen du gehien etxe barruan?

Etzetresnek. Bitrozeramikak gehienbat. Baita garbigailuak, lehorgailuak, ontzi garbigailuak eta holakoek ere.

“Aerotermin bidezko berokuntza instalatzen hasi dira asko: plakek ekoizten duten argindarra etxea berotzeko erabiltzen da”

Autokontsumoa posible al da plakak erabilia? Eguraldiaren menpe egotea da traba nagusia?

Eguzki izpiekin funtzionatzen du, eta, beraz, eguzkirik ez badago, ez du energia sortuko. Askok nabaritzen da lainotuta egon edo eguzki izpi batzuk agertzen badira; askok energia gehiago sortzen dute eguzki izpiek zuzenean ematen dutenean. Bestalde, oso zaila da autokontsumoa lortzea eta enpresa elektrikoek beharrik ez izatea, ia ezinezkoa. Bateriak edukita ere ezinezkoa da, Passivhaus moduko etxeak eduki gabe behintzat.

Nafarroako hegoaldean gehiago, baina hemen ez dira egun eguzkitsu asko...

Halere, hemen gero eta gehiagotan agertzen da eguzkia. Aurten behintzat hala izan da, eta azken urteotan ere hori izan da joera. Orduan, nik pentsatzen dut horrelako instalazioak gero eta gehiago jarriko direla.

Komunitate energetikoak ere gero eta gehiago dira. Bakoitzak bere etxean jarri beharrean plakak eta instalazioa, herritar batzuek erabakitzen dute herrian bertan instalazio handi bat egitea, udalari horretarako baimena eskatuta, eta, modu horretan, bakoitzak egin beharreko inbertsioa askoz txikiagoa da.



Mota askotako plakak daude, beharren eta prezioaren arabera. Arg: Igor Zabaleta

ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

Zer aurreikuspen egiten duzu, beraz?

Inbertsio handia da, baina diru laguntzek segitzen badute, nik uste jendea animatuko dela instalazio fotovoltaikoak jartzera.

Zer gomendio emango zenioke instalazio fotovoltaiko bat jartzekotan dabilenari?

Pentsa dezala zer behar dauzkan eta zer nahi duen. Jende askok garbi dauka gasa kendu nahi duela eta aerotermia jarri. Horientzat, argi eta garbi dago horrelako instalazio batek oso ongi funtzionatuko duela, sortzen duten energia guztia erabili dezakezulako, adibidez, etxea berotzeko. Epe luzera begirako inbertsioak direnez, garrantzitsua da argi izatea zer nahi den.

“Epe luzera begirako inbertsioak direnez, garrantzitsua da argi izatea zer nahi den”

Mantentze lanak ere garestiak dira?

Urtean behin edo plakak garbitu, eta bestela ez dago aparteko mantentze lanik egin beharrik. Gerta daiteke eguraldi txarragatik-edo arazoren bat izatea, baina hori beste sisteman ere gertatzen da. Gainera, sakeleko telefonotik kontrolatu eta ikusi dezakezu instalazioa nola dagoen, Internetera konektatuta baitago: plaka bakoitzak zer produzitu duen, arazoren bat dagoen edo plakaren bat gaizki ote dabilen, eta

termostatoa martxan jar dezakezu, energia aprobetxatzeko. Ez badiozu aplikazioari kasurik egiten eta, adibidez, berogailua gauean pizten baduzu, plakek egunean zehar sortzen duten energia alferrik izango duzu. Zuk sortzen duzun energia aprobetxatu egin behar duzu, eta, horretarako, ohiturak aldatu behar dira, hau da, egunean zehar gastatu energia hori.

Euskal eduki sortzaile berrien kabia

“ARNASETIK” BIDEOSORMEN LEHIAKETAREN LEHEN EDIZIOAK SORMENA SUSTATU DU EUSKARAREN ARNASGUNEETAKO GAZTEEN ARTEAN.

Euskaraz sortuko duten sortzaileak behar ditu euskarak, eta hauen arrastoaren atzetik euskararen arnaguneei bisita egin die “Arnasetik” bideosormen lehiaketak. Arnaguneetan bizi diren 10-16 urte bitarteko gaztetxoei zuzendu zaie, bai eta arnaguneetako ikasleak jasotzen dituzten ikastetxeetako ikasleei ere. Lehiaketaren lehen edizioa arrakastatsua izan da. Adinaren arabera hiru kategorია izan ditu lehiaketak, eta kategoría bakoitzean erronka bati erantzun behar izan diote, guztiak euskararekin eta arnaguneetako hizkuntza-ohiturei zein bizipenei lotuak.



10-16 urte bitarteko gaztetxoei zuzendu zaie.

99 lan jaso ditu epaimahaiak eta kalitatea azpimarratzekoa izan da.

Arnasa Gara ekimenak arnaguneetako gazteei esperientzia berriak eskaintzen jarraitzeko asmoa du.

Sari banaketa

Julen Portillo euskal eduki sortzailea izan zen gidaria, eta Sara Alonso musikariak hiru pieza

eskaini zituen teklatuarekin. Julen Portillo zarautzerra da, eta Sara Alonso aramaioarra; biak euskaldun sortzaile dotoreak.

Arnasa Gara ekimenaren euskararen arnaguneen garrantzia gizarteratzeko

eta bertako herritarrak ahalduzko helburuarekin jaino zen, UEMAK, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak sustatuta. Aurten “Arnasetik” sormen lehiaketa izan du ardatz ekimenak, eta arnaguneetako gaztetxoak izan ditu jomugan, haien hizkuntza ohituren inguruan gogoeta egiteko eta haien sormena sustatzeko. Izan ere, euskaldun eduki sortzaile gisa ere funtsezkoak dira euskararen biziberritze prozesuan.

Info gehiago: www.arnasagara.eus



▶ ANTSONEKO GAZTAK ZILARRA IRABAZI DU NAZIOARTEKO GAZTA TXAPELKETAN

Uztegiko Antsonea gaztak bigarren postua lortu du Galesen egin zuten Nazioarteko Gazta Txapelketan. Mundu osoko gaztagileak, erosleak eta merkatariek elkartzen ditu txapelketa horrek, 40 herrialde baino gehiagotako 4.000 gaztatik gora epaitzeko. Antsonekoen gazta ketuak espektatiba guztiak gainditu eta zilarra irabazi zuen. Hori ez da izan, baina, aurrean lortu duten sari bakarra: Madrilgo Salón Gourmet txapelketan ere bigarren saria irabazi zuten Uztegiok, baita Nafarroako Gazta Txapelketan eta Azken Muga jaialdikoan ere.

Zorionak familia, eta segi arrakastaz beteriko bidean!



▶ ASTIZKO ATERPETXEAN, MARI DOMINGIREN ETA OLENTZEROREN BILA GALTZAGORRIKIN

Eguberriak ate joka, Astizko aterpetxean plan ederra antolatu dute abenduaren 10 eta 11rako: basoan barrena, galtzagorrien eskutik, haurrak Mari Domingiren eta Olentzeroren bila joango dira, eskutitza edo marrazkia emateko. Ondoren, gaztaina jatea egingen dute. Erreserba egiteko, deitu 629 751 186 zenbakira. Bestalde, kontziliazio zerbitzu bat antolatu dute Larraungo eta Lekunberriko familientzat (abenduak 26-30 eta urtarrilak 2-5; 9:00etatik 13:00etara). 3 eta 12 urte bitartekoentzako jolasak eta tailerrak prestatu dituzte. Informazio gehiagorako, deitu aurretik aipatutako zenbaki horretara.

'ELAIDE.EUS', EUSKARA IKASTEKO ETA EUSKARAZ BIZITZEKO

Nafarroako toki-entitateetako 28 euskara zerbitzuz sortutako *Elaide.eus* webgunean euskara ikasteko eta euskaraz bizitzeko baliabideak eta informazioa aurkituko dituzu: euskarazko jardueren agenda, buletina, euskara ikasteko diru laguntzei buruzko informazioa, euskara ikasi eta praktikatzeko baliabideak, hainbat webgune eta proiektutara estekak... Helburua da euskara eta euskal kultura euskara ikasleen eta beraz ikasteko asmoa dutenen eskura jartzea.





▶ MASKARADA JATETXEAK MICHELIN IZAR BERDEA ETA BIB GOURMAND SARIA IRABAZI DITU

Espainiako eta Portugalgo 2023ko Michelin Gidan agertuko da Lekunberriko Maskarada jatetxea. Batetik, izar berdea eman diote, jatetxearen eredu jasangarriagatik eta ekonomia zirkularren alde egiten duen apustuagatik —aurten banatu dute aurrenekoz izar hori—. Izan ere, Arruitzen bertan eta askatasunean hazten diren txerriak dira menuaren oinarria. Eta, bestetik, Bib Gourmand izendapena ere jaso du, kalitatearen eta prezioaren artean oreka mantentzen jakiteagatik. Denera, 14 jatetxek jaso dute izar berdea, eta 281ek, berriz, Bib Gourmand saria.



▶ 2023AN, ALOKAIUZKO BI ETXEBIZITZA PUBLIKO IZANEN DIRA AZPIROTZEN ETA ETXARRIN

Larraungo Udalak jakinarazi du bukatu dituztela Azpirotzen eta Etxarrin etxebizitza bana alokairuan jartzeko egiten ari ziren obrak. Hala, udalaren helburua da 2023. urtean bi etxebizitza publiko horiek alokairuan jartzea. Kontzejuek eta udalak adostu duten hitzarmenaren arabera, Larraungo udalak obrak finantzatu ditu eta 18 urtez arduratuko da kudeaketaz, baina jabetza kontzejuek izanen da. Lanak EH Bilduren talde parlamentarioak Nafarroako 2022ko aurrekontuetan lortutako diru poltsa batekin finantzatzen ari dira.

BILKETA HANDIA EGIN DU AURTEN ERE NAFARROAKO ELIKAGAIEN BANKUAK

Bilketa handia egin du aurten ere Nafarroako Elikagaien Bankuak azaroaren 25ean eta 26an. Taldeko kideek eskerrak eman nahi izan dizkiete herritarrei: "Larraun eta Lekunberriko biztanleei, berriro ere, eskerrak eman nahi dizkiegu. Nahiz eta aurten egoera ekonomikoak guztientzat okerrera egin duen, gutxien dutenei laguntzeko borondate handia agertu da. Esker bereziak parte hartu duten dendei eta boluntarioei, bilketan emandako laguntza guztiagatik".



Komunitatearen eskutik, zerura heltzeko

Araxes Ikas Komunitateak prozesu bat abiatu du zer-nolako eskola nahi duten erabakitzeke eta beharrezko aldaketak egiteko. Horretarako, komunitate osoaren ametsak bilduko dituzte abenduaren 14ra arte, eta ondoren hasiko dira horiek lantzen, lantaldetan. Komunitatea bera sendotzea ere badute helburu, baita ibarrean ezagutaraztea ere. Azaroaren 26an eman zioten hasiera Amets faseari, festa giroan.

14

Ametsen erreinu bihurtu da Beteluko Araxes eskola azken hilabeteetan. Hegan egiten duten apaingarriz josi dituzte eskolako txokoak: hegazkinak, kometak, globoak, hodeiak... Eta haiek ere zerua ukitzea dute helburu. Leloak argi dio: Hegan egiteko modu asko daude: gurea amestea da. "Nolako eskola nahi duzu?" galderari erantzunda, eskola hobe bat eraiki nahi dute, eta, horretarako, ikas komunitateko kide guztien ametsak hartuko dituzte abiapuntutzat. Hain zuzen, Amets fasea deiturikoan murgildu da Araxes Ikas Komunitatea, eta dagoeneko eman diote hasiera prozesuari. Ez nolanahi, gainera;

"Komunitatea bera ere aldatuz doanez, guraso berrien ametsak aintzat hartzeko ere abiatu dute berriz prozesua"

azaroaren 26an, ospakizun giroan hasi ziren amesten, egun osoko egitarau eder batekin. Hiru aste izanen dituzte ametsak postontzietan sartzeko, eta, ondoren, horiek errealitate bihurtzeari ekingo diote, lantaldetan. Ikas komunitatearen kide guztien ametsak bildu nahi dituzte, izan ikasle, irakasle, langile,

guraso, laguna, izeba, osaba, aitona, amona... Horiek guztiak gabe ez baitago komunitatea sortzerik. Eta komunitate osoaren laguntzaz ere eramango dituzte aurrera amets horiek guztiak.

Orain dela bost urte jarri zuen martxan lehen aldiz Araxes eskolak horrelako prozesu eraldatzaile bat, hain zuzen, ikas komunitate bihurtu eta gutxira. Orduko hark fruitu emankorrek utzi zituen, amets batzuk egia bihurtzeaz gain, komunitatea sendotzen hasteko lehen urrats garrantzitsuak izan baitziren. Besteak beste,



ispiluak jarri zituzten komunetan, bizikidetzarekin lotutako egitasmoak abiatu zituzten, musikaz girotuta sartzen dira gelara eta baratze bat daukate ordutik. Pandemia hasi zenetik, baina, ikas komunitateko giroa pixka bat hoztu zela ohartu ziren eskolan, eta bultzada baten beharra ikusi zuten, ikas komunitatea indarberritu zedin. Hala, Amets fasea berrakibatzea pentsatu zuten, eta ikas komunitateari galdetzea berriro ere zer-nolako eskolarekin egiten duen amets, zer nahiko lukeen egotea eskolan eta zer aldatuko lukeen. Amets guztiek daukate lekua prozesuan, ideia guztiak dira ongi etorriak, egia izan arren den-denak ez direla egingarriak eta, beste kasu batzuetan, saiaturata ere zailak direla lortzen.

“Hezkuntza ez da bakarrik zentro barrukoa; zure esku dagoena egiteko aukera baduzu ondorengoentzat, ezin hobe”

Aitor Cobos, gurasoa

Komunitatea bera ere, gainera, aldatuz doa; ikasle berriak hasten dira urtero eskolan, eta horien guraso askok, segur aski, sekula ez dute parte hartu horrelako prozesu batean. Horregatik ere erabaki dute berriro amets egitea eta amets berriak biltzea, guraso berri horiek aintzat hartzeko eta horien ametsen berri izateko.

Ametsen batzordeak

Kalejiran, musikaz alaiturik, ametsak gordetzeko postontziak jarri zituzten herrian zehar; Betelun jartzeaz gain, ibarreko gainerako herrietan ere



Haurrak kartoizko kaxetan aritu ziren jolasean. Arg: Labrit

paratu dituzte kutxak, herritar guztiek izan dezaten desiratzen duten hori helarazteko aukera. Abenduaren 14an jasoko dituzte postontzi horiek bueltan, eta amets guztiak bilduko dituzte. Orduan, ikas komunitateko kideek osatutako batzordeak, hau da, ametsen batzordeak, lanean hasiko dira: ametsak banan-banan hartuko dituzte, eta balorazio moduko bat egingen dute egingarriak diren ala ez argitzeko. Hala badira, amets hori errealitate bihurtzeko hasiko dira lanean, talde-lanean. Talde horiek ere komunitate osoko lagunek osatuak

izango dira, askotarikoak, eta parte hartu nahi duen ororentzat daude irekiak.

Baina prozesuaren hasiera ez zen goizera mugatu, inondik ere: jolasak eta kalejiraren ondoren, denek elkarrekin bazkaldu zuten, eskolan bertan dagoen frontoian. Jarraian, bingoan aritu ziren, eta musikaz gozatu ahal izan zuten arratsaldean ere. Eguna borobiltzeko, gainera, suzko globo batzuk aineratu zituzten, egun bereziari ezin amaiera ederragoa emanez.

Gurasoen inplikazioa, ezinbestekoa

Tamalez, baina, amets guztiak ezin dira bete. Bereziki, bada ikasle nahiz gura askok desio duten baina oraindik lortu ez duten amets bat: eskolako jolastokian aterpe bat jartzea, euria egiten duenean hurrek han jolas egin dezaten. Ibai Eraso eta Adei Ijurko 6. mailako ikasleek, adibidez, segituan aipatu dute proiektu hori beren ametsengatik galdetuta. Gogo handiz aritu dira eskola apaintzen eta gurasoei egindakoa kontatzen, eta badituzte beste bi amets ere: batetik, eskolako jangelan pizza ematea, eta, bestetik, baloiarekin jolasten uztea frontoian, jolasgaria. Aurreko fasean heldu zioten jolastokian aterpe bat jartzeari, eta horretarako sortu zen batzordeak lanean dihardu oraindik, baina, jo eta ke aritu diren arren, oraindik ez dute lortu Nafarroako Gobernuak baimena ematea.



Ikasleak ginkanan. Arg: Labrit



16

Aitor Cobos gurasoa da, besteak beste, lan horretan aritu direnako bat. Oraingorako ere lan handia egiten ari da, Laura Uharte bezalaxe, biek erabaki baitute aurten ere esperientzia errepikatzea —beste guraso batzuk ere aritu dira antolaketan—. Nabarmendu dute seme-alabak pozez zorutzen egoten direla horrelako prozesuak martxan jartzen direnean, eta garrantzitsua dela haiek ikustea gurasoak ere inplikatzeko direla. Gainera, uste

“Araizko eta Beteluko udalak eskutik joatea eta eskola gehiago sustatzea gustatuko litzaidake”

Laura Uharte, gurasoa



Lagunasesoría S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKEKAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK
.....

24 ORDUKO TELEFONOA
• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es

dute komunitatea sendotzeko eta harreman berriak sortzeko aukera paregabea dela, eta haiei, behintzat, asko lagundu diela horrek: "Denok elkartu ahal izateko toki bat da, eta ibarreko jendea ezagutzeko aukera ematen du", adierazi du Uhartek. Cobosek esan du seme-alabek eskola uzten dutenean ere gustatuko litzaiokeela jarraitzea: "Hezkuntza ez da bakarrik zentroan bertan egiten eta jasotzen duzuna, eta zure esku dagoena egiteko aukera baduzu ondoren etorriko direnentzat, ezin hobeki".

Haiek zerekin egiten duten amets galdetuta, jolastokiko aterpea aipatu dute, baina baita beste bi amets ere. Cobosek: "Mahai-futbola dagoen gela hobetzea gustatuko litzaidake, gazteak eroso senti daitezten bertan jolasten euria egiten duenean". Uhartek, berriz, udalei egin die deialdia: "Araizko eta Beteluko udalak akordio batera iristea gustatuko litzaidake, eta, horrela, ardurak har ditzatela. Eskutik joan daitezela eta eskola gehiago susta dezatela".

Hazia erein dute dagoeneko Araxesen, eta orain zer fruitu ernalduko den ikustea baino ez zaie falta, baina argi dute elkarlana, gogoa eta ilusioa ezinbesteko osagaiak direla prozesutik indarberrituta ateratzeko eta ereindakoa biltzeko. Dena den, ametsak ez dute etenik Araxes Ikas Komunitatean, eta amesten jarraituko dute, esna bada ere.



Globoak, kometak... askotariko elementuekin apaindu dute eskola. Arg: Labrit

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

**OTXOTORENA
okindegia**

ARRIBE

**ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32**



**urrutia
enea**

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI



SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



GAINTZA · ALDATZ

Hurrengo urtera arte, akabo festak!

Azaroan Gaintzan eta Aldatzen ospatutako San Martin festek borobildu dute aurtengo denboraldia. Giro ezin hobean, eguzkia lagun eta temperatura gozoan, pozez eta ilusioz ospatu dituzte festak. Gaintzan, lepo bete zen herriko elkarteak ostiraleko txuleta afarirako, 100 pertsona ingururekin, eta Gabezin taldeak dantzan jarri zuen ukulua larunbatean. Aldatzen, berriz, Iraunkorrek txarangak alaiturik, motz geratu zitzaizen etxe etxe egindako erronda! Asteburua bukatzeko, gainera, kirol ikuskizun ederrez gozatu zuten igandean, Araxes herri-kirol taldearen eta pilotari gazteen eskutik.



Aldatzen kantuan. Arg: Rober Gutierrez



Talo jate ederra egin zuten Gaintzan igandean. Arg: Labrit



Gaintzako elkartearen. Arg: Labrit



Kudrilla ederra elkartu zen Aldatzen etxez etxeko errondan. Arg: Xanti Saigos



Aldazko erronda. Arg: Rober Gutierrez



Aldazko erronda. Arg: Rober Gutierrez



Sukaldari bikainak taloak egiten. Arg: Labrit

LEKUNBERRI

Musika gau ahaztezina Printza gune autogestionatuan

Rock-punk doinuek eta emanaldi akustikoez musikaz blaitu zuten Printza Lekunberriko gune autogestionatua azaroaren 25ean. Jendez lepo bete zen gunearen kanpoko aldean jarri zuten karpa, eta giro ezin hobean aditu zituzten artistak bertaratutakoek. Batetik, Robek (Aldatz) eta Gaizkak (Sodade taldea, Leitzatik) kontzertu akustiko bana eman zuten, gertuko giroan. Eta, bestetik, rockak eta punkak hartu zuten protagonismoa: Lekunberriko Irikai taldeak azken hilabete hauetan landutakoa erakusteko aukera izan zuen, orain gutxi sortu baitute taldea Igor de Castrok (baterian), Eba Fernandezek (ahotsa), Xabi Zabaletak (gitarra) eta Santik (baxua). Eta, bukatzeko, Lendakaris Muertos talde mitikoaren txanda izan zen; 2004an Iruñean sortu zen taldeak erakutsi zuen oraindik ere jendea erakartzen duela eta bizirik dirauela. Abendurako, berriz, Muxutruk azoka antolatute Printzan, 16an, eta ipuin kontaketa 23an, Joana Ziganda eta Iker Uriberen eskutik (18:00etan).



Bukatu da Euskaraldia, baina ez hitzez ekiteko garaia!

Abenduaren 2an bukatu zen Euskaraldia, hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duen ariketa soziala. Alabaina, egitasmoak utzitako fruituak biltzeko garaia da orain: ariketan aldatutako ohiturak finkatu eta euskaraz gehiagorekin eta gehiagotan egiteko aldia. Herritarrek gogotsu hartu dute parte gure ibarrean Euskaraldiaren bueltan antolatutako emanaldietan, eta, bukatzeko, bertso saioa izanen da Aldatzen abenduaren 2an, 19:00etan, Xabat Illarregi, Imanol Artola Felix eta Ane Zuazubiskar bertsolariekin.

19



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

GRAL SARIA

Maddi Soroak irabazi du EHU-k eta Bertsozale Elkarteak banatutako GRAL saria


EHUko Mikel Laboa Katedrak eta Bertsozale Elkarteak uztailan aurkeztu zituzten GRAL Saria eta Ikerketa Proiektu Saria lortzeko deialdiak; ikerlanak eta proiektuak jasota eta epaimahaiak horiek aztertuta, Maddi Soroa lekunberriarrentzat izan da GRAL Saria. Hain zuzen, Bertsolariaren formazioan bertsoa sortzeko eta interpretatzeko kompetentzia arloak lanarengatik saritu dute. Ikerketa Proiektu Saria, berriz, Bertso-eskola Zaballako espetxean: presoan, espetxearen eta bertso mugimenduaren arteko elkarreragina proiektuarentzat izan da; Iñaki Viñaspre Simon, Izar Mendiguren Cosgaya, Oihane Perea Perez de Mendiola eta Ruben Sanchez Bakaikoa dira azken horren egileak.



ARAITZ-BETELU

Martxan da Araitz-Beteluko Kulturaldia!

Urtero legez, aurten ere Araitz-Beteluko kulturaldiarekin abiatuko da abendua. Azaroaren 26tik abenduaren 10era bitarte, askotariko kultur eskaintza izanen da. Hasteko, Atalluko Adur Cobos gaztearen **Araizko koloreak** argazki erakusketa ikusgai egonen da Beteluko Indianoetxean; hamaika argazkiz osatutako erakusketan, Adurrek intsektuei nahiz hegaztiei ateratako argazkiak jarri ditu. Bestetik, **Bi arnas** dokumentala eta **Bost teilatu** filma emango dituzte, abenduaren 2an bata eta 3an bestea. 4an izango da egun handia, Araitz-Beteluko Eguna: goizetik hasita, egun osorako egitaraua ondu dute, bazkari eta guzti. 7an, berriz, Iker Zubeldia eta Onintza Enbeita bertsolariak girotuko dute Atalluko bertso-afaria, eta 9an Anne Martija abeslariaren kontzertu akustikoa izanen da, Azkaraten. Aitzakiarik ez da, beraz, ongi ez pasatzeko! Egitarau osoa, agendan.



Iñigo Garaioa
MARGOLARIA



696 658 288
LEKUNBERRI

German Lasarte
ARBEONDO
HARATEGIA



Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
SALMENTA ETA KONPONTZA

634 551 743
infoaralar@gmail.com





Araxes sokatira taldeak aurreneko zortu du saria helduen mailan

Araxes Herri Kirol Taldeko sokatiralariak jo eta ke aritu dira lanean taldea sortu zutenetik, baina orain arte ez zuten lortu txapelketetan lehen hiru postuetan geratzea. Bolada hori, baina, eten egin dute; erakustaldi ederra emanaz, azaroaren 19an Elizondon jokatu zen Nafarroako Sokatira Txapelketako jardunaldian hirugarren postua lortu zuten, hain zuzen, nesken 380kg - 6x6ko modalitatean. Mistoen modalitatean, berriz, saria lortzetik postu batera geratu ziren, baina horiek ere oso lan txukuna egin zuten, baita meritu handiko puntuazioa lortu ere. Gainera, Mattie Garaikoetxea beteluarrak txapela lortu zuen Lesakako Beti Gazte taldearekin, txapelketako urrea irabazi baitzuten. Honela geratu zen sailkapena: Beti Gazte, Amaiur, Araxes, Berriozar, Txantrea, Antsoain. Zorionak Araxes! Zorionak Mattie!

Guillermo Mazo txapelketako finala Lekunberrin jokatuko da, abenduaren 3an

Azaroaren 1ean eman zioten hasiera aurtengo Guillermo Mazo pilota txapelketari, Nafarroako federazioak antolatutakoa. Lau eta erdiko modalitatean aritzen dira gazteak, eta Lekunberrin jokatuko dute finala, abenduaren 3an. Larraundarrek, tamalez, ez dute lortu finalaurrekoetara sailkatzea, azaroaren 29an jokatuko dena, hori ere Lekunberrin. Haiek pasatu dira txanda horretara: Sanchez (Oberena) eta Apezetxea (Erreka) arituko dira batetik, eta Garaño (Ultzama) eta Sarasibar (Oberena) bestetik. Beñat Apezetxea izan zen iazko txapelduna, Sarasibarren aurka jokatutako finalean gailenduta. Aurten baliteke final hori errepikatzea.



Larraungo Pilota Elkartearen elkartasun saskia

Aurten ere Larraungo Pilota Elkartek bertako saltoki eta ekoizleen produktuekin osatutako saski eder bat zozkatuko du. Helburua da inguruko komertzioari eta ostalaritzari laguntzea. Artxueta harategian dago, eta zozketan parte hartzeko papertxoak ere bertan eskura daitezke. Abenduaren 23ra arteko epea dago parte hartu ahal izateko, eta abenduaren 24an egingen dute zozketa.

AMAIUR bar
 GTXKO PIZZAK,
 KOPA BERGIZIAK
 948504352

 **ALIPROX**
 Lekunberri
janaridenda
 hamabostaldiro
 eskaintza bereziak

MALLOAK
 ARTZAI GAZTAK
 Granja Martikonea, GAINZA, Nafarroa
 Jabi, 649 472 057 + Ipcune, 660 511 087
 Malloak.com | info@malloak.com
IDIAZABAL

GALBURU
 okindegia - panaderia
Egur-labean egina!
 Alde Zaharra 50
 LEKUNBERRI
 948 50 40 42

“Beharren arabera funtzionatzea eta elkarri laguntzea da asmoa”

Lekunberriko eta Larraungo herritarrek Kudea Go aplikazioa erabil dezakete beren sakelakoan autoa partekatze, autobusen ordutegiak jakiteko nahiz bizikleten alokairuaren inguruko informazioa lortzeko. Patxi Mirandak sortu zuen aplikazio hori, 2020an, bizi den herrian bertan zazpi urtean egindako proba batetik abiatuta. Beste hamar zonatan ere erabiltzen dute; esaterako, Sakanan eta Imotzen.

Noiz sortu zenuen Kudea Go aplikazioa?

Kudea Go plataforma 2021eko urtarril aldera jarri zen martxan. Pandemiaren garairik gogorrenetarikoan geunden, ordutegiak genituen garai hartan. Gauzak hala, jendea autoak erosten hasi zen, autoa partekatu beharrean. Autoa partekatzeko aukera bakarrik eskaintzen zuen hasieran plataformak. Gero ikusi genuen landa-eremuan bazirela beste zerbitzu batzuk, autobusak adibidez. Erakundeek ahalegin handia egiten dute zerbitzu horiek mantentzeko, eta hori ere gehitzea erabaki genuen. Horrez gain, bizikletak alokatzeko enpresak edota taxilariak ere beharrezkoak dira mugikortasunerako, eta hori guztia osatu, eta dena sartu genuen aplikazioan.

2020an sortu zenuen, landa-eremuko herrientzat, baina zein izan zen abiapuntua?

2014. urtean, Whatsapp talde bat sortu nuen ni bizi naizen herrirako,

Aizarotzerako (Basaburua). Talde horren helburua zen herritarrek autoa partekatzea joan-etorriak egiteko. Nahi zuenak bidaia bat eskaini zezakeen taldean, edota galdetu baten batek ba ote zuen herriren batera joateko asmoa. Nahi zuenak autoa partekatzen zuen horrela. Hasieran, Aizarozkoek bakarrik erabiltzen genuen, baina gero ondoko herri batzuk ere sartu genituen. Zazpi-zortzi urte hauetan, 4.700 eskaera inguru egin ditugu talde horretan, eta 3.200 inguru gauzatu dira. Kopuru handia da. Gainera, egin genituen kalkuluen arabera, 14.700 kilo CO2 inguru gutxiago isuri ditugu modu horretan. 2019an, Europako Parlamentuak klima larrialdia ezarri zuen, eta gizarteari eta erakundeek eskatu zien aurrerapausoak emateko. Orduan, pentsatu nuen: gure herriko talde honek funtzionatzen badu, ongi legoke erakunde txikiak izatea joan-etorriak egiteko unitate hau bultzatzen dutenak. Azken finean, tokiko entitateek oso gutxi egin dute mugikortasunaren alorrean, garraioak ez baitaude haien esku.

Beraz, Whatsapp talde horretan funtzionatzen zuten gauza onak plataforma batean jarri, eta udalei edo tokiko entitateei eskaintzea erabaki nuen, haiek herritarren esku jar zezaten baliabide hau.

Plataformari forma eman, errealitate bihurtu, eta nola hasi zinen zabaltzen?

Udalekin harremanetan jartzen hasi nintzen. Nafarroako Gobernuarekin ere hitz egin nuen, Cederna Garalurrek ere jakin zuen existitzen zela, eta hark Dinabiderek jarri ninduen harremanetan. Dinabide coworking teknologikorako gune bat da, Sakanako Garapen Agentziak eta Irurtzungo Udalak sustatua. Coworking horretan sartu nintzen, eta, Nafarroako Gobernuaren, Dinabideren eta Sakanako Garapen Agentziarekin batera, mugikortasunaren inguruko diagnostiko bat egin genuen. Horren ostean, proiektu pilotu bat egin genuen Sakanan; hala, diagnostiko bat egin eta plataforma martxan jarri genuen.



Sakanako proiektu pilotu hori izan zen aurrenekoa?

Lekunberri-Larraun izan zen martxan jarri zen lehenengo zona, eta Sakana gero. Gorka Azpiroz eta Mikel Uharte alkateei aurkezpen bat egin nien, eta oso argi zuten eskualde osorako behar zuela izan aplikazioak. Eta ondoren beste hamar zonatan jarri zen martxan.

Autoa partekatze eskatu daiteke, baina baita eskaini ere?

Ez, eskaera bakarrik egin dezakete erabiltzaileek. Saiatzen gara sakelakoak ez dezala zarata handirik atera, ez dadin erabat aritu jakinarazpenak bidaltzen. Gainera, hainbeste jakinarazpenekin, balioa galtzen dute. Modu honetan, jakinarazpen bat iristen denean, baten batek laguntza behar duelako da, eta horrek dauka zentzua: beharren arabera funtzionatzea eta elkarri laguntzea.

Beraz, irabazi-asmorik gabeko aplikazio bat da?

Erabiltzaileek adostu dezakete gastuak erdibana ordaindu edo ez, baina aplikazioak ez du dirurik irabazten. Auzokideak gara, autoa partekatzen dugu, baina ondokoarekin, herriko jendearekin, edo zonakoarekin. Lurralde kohesioa lortu nahi da, komunitatea sendotu.

1/ App Store edo Play Store plataformetatik deskargatu eta sakelakoan instalatu. Hasieran, hizkuntza aukeratu dezakezu, goian eskuinean klikatuta. Ondoren, "Izena eman" klikatu. Zure helbide elektronikoa jarri, eta pasahitz bat sortu.


2/ Jarraian, zure datu pertsonalak eman beharko dituzu. "Eremua" jartzen duen laukian sakatzean, "Lekunberri-Larraun" aukeratu. Horren ostean, zein herritako jakinarazpenak eta eskaerak jaso nahi dituzun zehaztu dezakezu. Beti izango duzu hori moldatzeko aukera.

3/ Saioa hasita, aplikazioa erabiltzeko prest duzu dena! Aurkibidean dituzu zerbitzu guztiak: garraio zerbitzuak, autoa partekatze aukera, ezarpenak...

4/ Nonbaitera joan nahi baduzu beste herritarren baten autoa partekatuta, klikatu "Nora joan nahi duzu?" galderan. Jarraian, zein herritatik zein herritara joan nahi duzun idatzi, zenbat bidaiari izango zareten, eta noiz eta zein ordutan joan nahi duzun. Hori osatuta, sakatu "Bidali".

5/ Eskaera sortuta, "Ohar taulan" agertuko zaie erabiltzaileei. Baten batek zurekin autoa partekatu nahi badu eskaeran zehaztutako bidaia egiteko, "Ohar taulan" zure eskaeran klikatu eta mezu bat idatziko dizu txatetik. Kontrara, zuk "Ohar taulan" eskaera bat ikusi eta zure autoa partekatze prest bazaude, eskaeran klikatu eta txatetik idatzi diezaiokizu.

6/ Garraio zerbitzuen berri izateko, klikatu "Autobusa" edota "Bizikleten alokairua" esteketan. Autobusen kasuan, linea guztien ordutegiak, geltokien kokapenak nahiz enpresen telefono zenbakiak eta webguneak agertuko zaizkizu. Bizikleten alokairuaren kasuan, berriz, "Amairu Rental Bikes" eta "Biraka" zerbitzuen telefono zenbakiak, webguneak eta kokapenak.



Suizidioaz

Heriotzaz modu naturalean hitz egitea nekeza bazaigu, are gehiago suizidioaz aritzea. Ahopeka hitz egin beharreko gaia izan da, Elizak urte luzez baztertutakoa, hedabideek isildutakoa eta Osasungintzak ahaztua.

Baina badirudi koronabirusak sortutako ezohiko egoerak estalia zegoen arazoa lehertu egin zuela eta gaiari heltzea baino ez zaigula gelditzen.

Munduan, urtero milioi bat pertsonak egiten dute bere buruaz beste. Espainian 4.000 eta Nafarroan, urtero 50 lagunek.

Suizidioa heriotza ez naturalaren kausa nagusia bihurtu da espainiar estatuan. Eta horrek gaiaz hitz

egitearen beharra eta osasun mentala zaintzeko dugun ardura azaleratu du.

Hedabideetan, istripu eta gertaera askoren atzean zegoen gaia izanik ere, informazio hori saihestea zen orain arte adituek gomendatu izan dutena. Dei-efektua edo Werther efektuaren beldur ziren. Hau da, suizidio baten berri ematerakoan kasuak ugaritzearen fenomeno soziologikoaren beldur.

Baina gai tabua bihurtzeak are beldurgarriago bihurtu du halako ideiak sufritzen dituzten pertsonentzat eta euren gertukoentzat. Sozialki plazaratzeko ezintasuna, lotsa eta baliabide falta sentitu izan dute gehienetan.

Behar horiei erantzuteko lanean dihardu Besarkada Elkartek. Eta elkarrekin berak eskaintako laguntzaz baliatuko gara gaiaren gakoak eskaintzeko.

Zerk eramaten du pertsona batek bere buruaz beste egitera?

Hori da suizidio kasu baten aurrean denoi burura datorkigun galdera. Zer izan liteke horren larria bizitzari bizkarra ematera iristeko? Adituen arabera, galdera horren atzean inoiz ez dago arrazoi bakar bat. Pertsona batek ez du arrazoi bakar batengatik halako erabakirik hartzen.

Idea suizidak dituenak sufriarazten duten arrazoi asko dituela senti ohi du. Ez du horrela bizi nahi eta ez du ikusten egoera aldatuko denik, ez eta sufritzeari uzteko beste irtenbiderik ere.

Akaso, aldatu dezakeela ikusiko balu bizitzen jarraitu nahiko luke. "Bere buruaz beste egin nahi duzunean, ez zara zu zeu", hori diote saiakerak egin edo ideia burutik pasa zaien gehienek. Errealitatea guztiz distorsionaturik ikusten baita muturreko egoerara iristean.



IORTIA CLINICA DENTAL · HORTZ JILNIKA

Amets Soroa Guelbenzu · Odontologoa Kol.Zk. 785
Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol.Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

Construcciones Gañarbe

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri
📧 construccionegañarbe@gmail.com

☎ 616 457 540
☎ 636 827 846

Izan gaitezen heldu

Nire ezaugarrietako bat, konpromisoerik eustea da. Behin konpromisoa hartuta, hobeto edo okerrago, neure indarren eta motibazioen arabera, konpromisoa beteko dut, bai ala bai. Horretarako, neure buruarekin oso gogorra eta zorrotza izaten naiz askotan eta, isilik gordetzen badut ere, besteekin horrela joka dezaket halaber. Balio handia ematen diot konpromisoak betetzeari eta gaizki eramaten dut norbaitek nirekin hartu duen konpromisoa betetzen ez duenean, areago nirea bete badut eta aukerak eman badizkiot konpromisoa betetzeko. Garai batean "euskaldunaren hitza" nahikoa omen zen konpromisoak betetzeko baina ez da horrela gertatzen beti.

Gauzak horrela, zer da gaizki jartzen nauena? Besteak bere ardurak ez betetzea? Besteak nirekin hartutako konpromisoa betetzea ez al dut merezi? Eta nik, beti bete al ditut? Ez noski, modu batera edo bestera, nire ardurak ez ditut beti bete. Bestearekin haserretzen naizenean nirekin hartutako konpromisoa ez betetzeagatik, neure buruarekin ere ari naiz haserretzen, hainbatetan ez bainaiz izan neure buruarekin arduratsu. Baina horrela izateko, beste ezer baino lehenago, zintzoa izan behar dut. Areago, neure burua hobetzea da ardura garrantzitsu bat, alegia, neure burua ulertu eta onartu maitatu ahal izateko. Horrela, heldua izanen naiz.



Zeintzuk dira bere buruaz beste egiteko arriskuan dagoen norbaiti laguntza eskaintzeko gakoak?

- Bestearen sufrimendua eta sentimenduak epaitu gabe onartu, garrantzirik ez kendu eta sufritzen ari dela ulertzen saiatu.
- Lasaitasuna transmititu eta interesa adierazi.
- Bere sufrimendua ulertzen duzula adierazi eta zurekin hitz egin dezakeela sentiarazi. Bere sentimenduengatik galdetu, barruan duena kontarazi.
- Babesa eta kezka adierazi.
- Bere ondoan egotea edozein erantzun ideal baino garrantzitsuagoa da.
- Ez egin salbatzailearena. Ez adierazi egoera konponduko denik, zuk ez duzu giltza, baina ondoan egonen zarela adierazi.
- Etxetik ateratzera animatu eta gaur ez badu nahi, bihar berriro aukera eskaini. Bere ondoan zaudela sentiarazi eta gauzak egiteko aukerak dituenaren ideiak indartu.
- Zuretzat pertsona garrantzitsua dela adierazi. Azaldu ez duzula desagertzerik edo min egiterik nahi.
- Jarraipena egin eta hori egiten duzula sentiarazi.
- Senideei eta lagunei bere egoeraren berri eman.
- Izan ditzakeen ilusioekin eta helburuekin konektatzen lagundu.
- Baliotsu sentiarazi.



• Baliabideak eskaini:

➤ telefonodelaesperanza.org

➤ besarkada-abrazo.org

➤ 024 telefono zenbakia

(bere buruaz beste egiteko ideiak dituzten pertsoneri edo senitartekoei zuzendutako arreta zerbitzua).

➤ 112 telefono zenbakia (larrialdietarako).



itz aspertuan

●● Agurtzane Altuna

Aballa

Zerbaitte o norbaitte oso azkar, zitzu batean pasatzen denean aballan diela esatea. Herrin erdittik autopistan balie bezala pasatzen den autoa, esate bateako, sekuleko aballan pasatzea; bateko o besteko gaztea sekuleko aballan ibiltzen omen da oain karneta atea berri hontan (gazte batzui zartuta re etzaie aballaik pasatzen, ez jarri beti gaztea miren); ta oso pauso azkarrean ibiltzen den pertsona horrengatik re, "horrek damaki horrek aballa!" pentsa dezakiu.

Minutuk, orduk, eunek, asteak, hilleeteak, urteak (berrize takoan azkeneko orrie!)...denboa bea re izuarrizko aballan pasatzea batzutan; noiz pasako luzetsita eoten gea, berriz, beste askotan.

"Eder edo itsusi, zein begik ikusi", halaxe dio esaera zaharrak. Denboakin re hala pasatze ote da ba? Abiadurekin o aballakin re hala pasatze ote da? "Azkar o geldi, ... (ez zait biarren zatiik etorri). Baño bistekoa da denboa ez dela berdin pasatzen denontzako.

Presaka bizi geala aurpeirutzen diu sarri hankak moteldu zaizkion horrek; kontutaako re denboik bare bizi geala; presaka bizi geala; kotxean ipurdie galduz, aballa batean joaten geala harea ta honea baztarrai beitzeko denborik bare; beti erlejuen menpe, aballan.

Lo re presaka itten omen da gaur. Eztakit hala den, baño nei re ohartzeako etortzen zait ate joka berriz eune; aballan.

Lo, ordun, aballan; jeki aballan; gosaldu aballan; lanea, bazkaldu.....siesta, pribilegio hoi daukenak.....ta berrize atsaldeko extraeskolar, entrenamentu, azindan lan, erosketa, otordu, etxekolan, ta lotaa presaka!

Arrazoiik ez zaie falta igual, bizie azkarrei nola gastatzen duun beire pause-n bezala bizi deen hoiri: "lasai kontu'etzuk esateko re denboik ez, hau marka".

Musike re zitzu'etean. Zeñek aitzeo gaurko eunean talde baten sorta osoa hasi ta buka? Motelegie igual galdera. Zeñek aitzeo gaurko eunean kanta bat oso-osoa hasi ta buka? Luze eoten zen gure amona rayatutako biniloai (literalki) mutturre noiz muittuko giñion zai bertso zarrak aitzen seitzeko. Gure aballak ez harrapatzen, ordea, orduko bere patxara.

Ta biniloa aipatuta ez pentsa sekuleko urte pille pasa deenik eh! Baño damakiun bizi-aballak deskuidatzeako bihurtzen zatto vintage.

Hurrengo:

Maddi Sotil Buldain (Betelu)





**Izar Amundarain Orbegozo
(Arribe)**

maite ditut maite gure bazterrak

Ttuturre mendia

Ibilbidea: zirkularra
Distantzia: 7,8km
Desnibela: 970m positibo
Zailtasuna: ertaina



Zergatik aukeratu dut?

Malloara igotzea beti da berezia, eta Ttuturreko gailurra, gainera, nire gelako leihotik txiki-txikitatik ikusi izan dudan mendia da. Bidea oso-oso lasaia da, ia inoiz ez dut inor topatzen bertan. Gainera, udaran batez ere, lagunekin maiz joaten gara bertara egunsentia ikustera. Oso gomendagarria hau ere!

Bidea:

- 1 Intza herriko plazatik abiatuta, goranzko bidea hartuko dugu hormigoizko pistatik. Hemendik gutxi gorabehera kilometro bat egin ondoren, etxeak ezker eta eskuinera utzita, lurrezko pistan sartuko gara, honetarako ezkerretara buelta emanez.
- 2 Pistan sartu eta berehala, bidegurutze batekin egingo dugu topo. Bertan eskuinerantz hartu behar dugu, basoan gora hasiz gure ibilbidea. Bide honetatik jarraitu behar dugu basoan barrena, garatoki bat igaro eta berriz ere basoan sartuz.
- 3 1,8km egin ondoren gutxi gorabehera, iturrira iritsiko gara; ur freskoaz gozatzeko aukera edukiko dugu. Iturritik aurrera oinezko bide estuari segituz, ezkeraldera joaz magaletik belardia gurutzatuko dugu. Bideari segituz berriro ere eskubitara joko dugu oraingoan Z bat irudikatuz eta Ttuturre parean ikusiko dugu.
- 4 Aurrera jarraitu behar da bidexka estu honetan, pare bat aldapa piko igo eta alanbrezko hesi bat gurutzatuz, betiere mendi punta bistan dugularik. Belar tartetik egingo dugu zati hau gehienbat.
- 5 Behin belarra bukatu eta harriak agertzen hasten direnean, bidearen amaierara iristen ari garen seinale! Azken txanparako berriz ere oinezko bideari segiko diogu, gailurra aurrean ikusita; zuzen gora joaterik ere badago belar eta harri artetik.
- 6 Gailurrera iritsita bertatik ikusten diren bidez gozatzea besterik ez zaigu geratzen. Beriain, Sakana, Malloa guztiak, Aiako Harria, Larhun, Pirinioak... eta noski Araitz-Betelu ibarra ere! Jaisteko, etorri garen bide beretik egingo dugu buelta.



Edonork nahi izanez gero, **QR kode honetan** Wikiloc-eko track-a ikusi eta deskargatu dezake GPS edo erlojuetarako!

Gasbidearen ibilbidea, onurak, kalteak eta errentagarritasuna aztergai

Nedgia enpresak Lekunberri, Larraun, Aralar eta Arakil zeharkatuko dituen 14 kilometroko gasbide bat egiteko asmoa du, gas naturala garraiatzeko. Aralar Zaindu Dezagun plataformaren arabera, ondorio larriak izango ditu ingurumenean eta herritarren bizi-kalitatean; besteak beste, 5.000 arbola baino gehiago moztuko dituztela adierazi dute. Plataformak eta Larraungo eta Arakilgo udalek helegiteak aurkeztu dituzte, baina auzitegi gorenak ez ditu onartu.

Azken urteotan, polemika handia sortu da Nedgia enpresak eraikitzeko asmoa duen gasbidearen inguruan. Naturgy taldeko gas naturalaren banatzailea da Nedgia, eta, Lekunberriko industrialdea gas naturalez hornitzeko helburuz, gasbide bat egiteko asmoa du. Hain zuzen, 14 kilometroko gasbide bat eraiki nahi du, Lekunberriko Arakileraino joango dena. Ibilbide horretan, besteak beste, Aralarko Kontserbazio Bereziko eremua zeharkatuko luke, bost kilometro inguruan. Inguruko nahiz Arakilgo

hainbat herritar ibilbide horren kontra agertu dira, eta Aralar Zaindu Dezagun plataforma sortu dute, proiektua salatzen eta eragozteko asmoz.

Plataformak gai honen inguruko hitzaldi bat antolatu zuen azaroaren 10erako, Lekunberriko udaletxean. Sustrai Erakuntzako kide Martin Zelaia energia berriztagarriak eta proiektu hori bera izan zituen hizpide. Jendaurrekoan esan zutenenez, Nedgia enpresak Nafarroako Gobernuaren eta Lekunberriko Udalaren baimena dauka dagoeneko proiektua aurrera eramateko, baina oraindik ez dakite noiz hasiko diren gasbidea eraikitzen. Hasieran, Nedgia enpresak hiru ibilbide proposatu zituela azaldu zuten: Leitzatik zihoan bat, Plazaolako bidetik Irurtzuneraino zihoan beste bat, eta Aralar mendia zeharkatzen zuen bat. Azkenean, azken hori aukeratu dutela azaldu zuten hitzaldian, baina enpresak ez duela argi zehaztu zein ibilbide izango duen; gutxi gorabehera nondik igaroko den azaldu zuten. Gainera, nabarmendu zuten ondorio larriak izango dituela ingurumenean, ekonomian nahiz

herritarren bizi kalitatean: haien arabera, 5.000 zuhaitz baino gehiago moztuko dituzte gasbidearen hodia lurraspian sartu ahal izateko, bidea zortzi metro zabal izango baita; gainera, azaldu zutenenez, enpresak ez du zuhaitz horien birlandaketari buruzko deus ere aipatu, eta ez du ikerketa topografiko nahiz geologiko zehatzik argitaratu. Plataformako kideek uste dute enpresak azkenean aukeratu duen ibilbidea ez dela egokiena, eta Plazaolako alternatibaren alde daude, baina deritzote azken aukera hori ez dutela behar bezala aztertu, eta horregatik bota dutela atzera. Nafarroako Gobernuak ez ditu aintzat hartu plataformak aurkeztutako alegazioak.

Energia fosilak gutxitu, elektrizitatea igo

Aurkezpenaren hasieran, Zelaia azaldu zuen gaur egun zenbat energia eta zer energia mota kontsumitzen den Nafarroan. Nabarmendu zuenez, energia primarioaren hiru laurdenak, hau da, naturatik hartzen den





energia, energia fosilak dira: ikatza, petrolio eta gas naturala. Energia berriztagarriak %21 baino ez dira; energia berriztagarrien barruan daude, batik bat, energia eolikoa eta fotovoltaikoa. Azken energiaren kasuan ere, hau da, kontsumitzen den energiaren kasuan, energia fosilak dira gehien kontsumitzen direnak, gas naturalaren zati bat elektrizitate bilakatzen den arren. Dena den, kontsumitzen den energia guztitik, %21a baino ez da elektrizitaterako erabiltzen, eta gehiena garraiorako eta industriadarako erabiltzen da: petrolio garraiorako (gasolina eta gasolioa) eta gas naturala industriadarako eta berogailuetarako. Arazo bat planteatu zuen ondoren Zelaiak: "Oso zaila da energia fosil

hori guztia, ia %65a dena, energia berriztagarri bihurtzea. Izan ere, elektrizitaterako erabiltzen da gehienbat energia berriztagarria. Beraz, paradigma aldatzeko lortu behar dena da oro har kontsumoak elektrizitatera jotzea. Baina, oraindik ere, kontsumitzen dugun energiaren %75 energia fosilak dira, eta %21 baino ez da elektrizitatea, eta elektrizitate horrek asko igo beharko luke energia berriztagarriak izateko". Gainera, elektrizitatearen kontsumoa baxua izateaz gain, "beheranzko joera" dauka kontsumoak, Zelaiaren arabera; bai Nafarroan, bai mundu osoan.

Energia berriztagarriek, baina, arazo batzuk dituztela esan zuen. Batetik, estazionalak dira, hau da, haizea eta eguzkia dagoenean bakarrik sortzen dute energia gehienek. Bestetik, elektrizitatea sortzen dute, eta gero eta elektrizitate gutxiago kontsumitzen da; gainera, oso zaila da sobera dagoen energia gordetzea. Azkenik, energia berriztagarria lortzeko baliabideak instalatzeak ondorio larriak ditu ingurumenean eta biodibertsitatea ere kaltetzen dute.

Gas naturala, zertarako?

Gas naturalaren kasuan, energia fosil bat da, eta frogatuta dago energia fosilek ondorio larriak dituztela klima aldaketan. Gainera, Zelaiak adierazi zuenez, energia fosilak gutxituz doaz, bukatzen ari dira, eta energia mota horren barruan dago gas naturala. Gehitu zuen gasbide batek gas naturala eta hidrogenoa garraiatzeko balio duela, eta hori dela askok erabiltzen dituzten argudioetako bat horrelako proiektuak defendatzeko, baina bi gas mota direla, eta, are, hidrogenoa finagoa dela eta errazago egiten duela ihes. Hori esanda, galdera bota zuen: "Beraz, arazo bat dugu: egoera honetan, egokia al da gasbideak egitea? Eragiten dituzten ondorioz ez, erabiliko al dira? Beteko al dira? Baldintza hauekin, nik asko asko birpentsatuko nuke gasbide bat egitea, eta are gehiago horrelako bat, ondorio larriak izango baititu kontsumoan, baina baita biodibertsitatean ere".



ASEGURU AHOLKULARIAK
Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

Era askotako ogiak eta gozoak

Etkez etxe banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

SARTU 'KATALOGOA.EUS'-EN, ETA OPARITU EUSKARAZKO PRODUKTUAK!

Urteko garai hau seme-alabei edo ingurukoei euskarazko liburuak, musika edota jostailu eta jokoak erosi eta oparitzeko aukera paregabea izaten dela kontuan hartuz, Euskal Herriko udal eta mankomunitatetako 100 Euskara Zerbitzuek baino gehiagok Euskarazko Produktuen Katalogoaren edizio berria osatu dute, beste urte batez. Aurtengoa 24. edizioa da.

Bai etengabe eguneratzen den web-orriak zein paperezko edizioak, biek ere itxura berriak estreinatu dituzte eta jasota dituzten produktuak bi ataletan dituzte sailkatuak: atal bat 0-12 urte bitarteko haurrentzako produktuekin osatua dago, eta bestea 12-16 urte bitarteko gazteentzako produktuekin.

Paperezko edizioa eta webguneko katalogoa daude. Jakina, paperezko edizioak ez ditu jasotzen KATALOGOA.EUS web-orrian jasota dauden produktu berri guzti-guztiak, atalka antolatutako hautaketa bat baizik: musika, DVD-filmak, aldizkariak, komikiak, liburuak, jostailu eta jokoak eta gurasoentzako materiala.

Web-orria maiz eguneratzen da, dagoeneko milaka produktu ditu eta bat erosi nahi izanez gero, produktuan klik eginez argialetxeen denda birtualetara sartzeko aukera ematen du.

Nobedadeen segimendua urte osoan egin daiteke buletin elektronikora harpidetuta

Azken nobedadeen berri izan nahi dutenei, KATALOGOA.EUS web-orriak buletin elektronikora harpidetzeko bidea ere ematen die. Hartara, harpidedunek urtearen buruan 10 buletin jasoko dituzte, argitaratu berri diren produktuen erreferentziekin.

Argibide gehiagorako: euskaraz@baranain.com / euskara1@sakana-mak.eus



ABENDUA

10- Galtzagorriekin Mari Domingiren eta Olentzeroren bila, Astizko aterpetxean, 11:00etan edo 12:00etan. Izena emateko: **629 75 11 86**.

3- Guillermo Mazo pilota txapelketako finala, Lekunberriko pilotalekuan.

4- X. Nafarroa Zinemaren Film Laburren Lehiaketako finalisten emanaldia, Lekunberriko Udal Batzar Aretoan, 17:00etan.

16- Printza: Muxutruk: jostailu eta arropak hartzeko aukera, 17:00etatik 20:00etara.

23- Printza: ipuin kontaketa Joana Ziganda eta Iker Uriberen eskutik: *Ni neu galtzeta eta xaxardi*, 18:00etan.

30- Euskal preso eta iheslarien aldeko elkarretaratzea Beteluko aparkaderoan. Ordu aldaketa: 20:00etan izanen da.

EUSKARAREN EGUNA

2- Bertso saioa Aldatzen, 19:00etan. Bertsolariak: Xabat Illarregi, Imanol Artola Felix eta Ane Zuazubiskar.

3- Mikroipuin lehiaketaren sari banaketa, 12:00etan, Gabari Gune Irekian. Txalaparta, Musika Eskolako musikariak eta abesbatza, eta mikroipuinen irakurketa.

ARAITZ-BETELUKO KULTURALDIA

Azaroaren 26tik abenduaren 9ra- *Araizko koloreak* argazki erakusketa, Atalluko Adur Cobos gazteak egindakoa. Beteluko Indianoetxean ikusgai.

2- *Bi arnas* dokumentala, 19:00etan, Intzan. Torturaren inguruko testigantza bat da. Maria Nieves Diaz (ama) eta Iratxe Sorzabal (alaba torturatua) dira protagonistak.

3- Araxes Herri Kirol Taldearen erakustaldia, 12:00etan, Uztegin.

- *Bost teilatu* filma, 19:00etan, Uztegin. Geuretik Sortuak egitasmoaren barruan.

4- Araitz-Beteluko eguna

- Dianak txistulariekin
- 11:00etan, pilotari txikien partidak
- 12:00etan, Leitzako erraldoiak
- 13:00etan, dantzari txikien saioa

Goiz osoan taloak egonen dira

- 14:00etan, kantu bazkaria Beteluko eta Hergaraiko abesbatzekin. Txartelak ohiko lekuetan salgai (helduak 20 euro, haurrak 5 euro).

5- Nafarroako Elikagaien Bankua, 19:00etan, Errazkinen. Ignacio Mari Errastiren hitzaldia, gosearen eta elikagaiak botatzearen aurka auzolanean egiten den lanaz.

6- *Sormen bidaia emozioetan barrena*, arteterapia ikastaroa, 19:00etan, Arriben, Irantzu Oterminen eskutik.

7- *Bideak* ipuin kontaketa, 17:00etan, Gaintzan. Iker Uribe eta Joana Zigandaren eskutik. Ondoren, mikroipuin lehiaketaren sari banaketa.

- Bertso afaria eta gau-pasa Atallun. Bertsolariak: Iker Zubeldia eta Onintza Enbeita.

9- Anne Martija abeslariaren kontzertu akustikoa, 23:00etan, Azkaraten.

10- *Mundua, hankaz gora?* Hitzaldia, 19:00etan, Lezaetan, Imanol Kañamaresen eskutik.

*Eguberrietan, Ibai Tolosa eta Ander Martinez de Rituerto gazteekin mahai ingurua, kirol bizipenen inguruan.



TAXILON
Lontxo Otamendi Artola
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com
Atallu - Araitz



CONSTRUCCIONES
ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS
Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

Errotaldea 19,
Lekunberri
www.martillobixiki.com
679 938 016
MARTILLO TXIKI
PERKUSIO ESKOLA



TEILATUAK
FATXADAK
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA
665 708 683
Lekunberri

2023ko Mailoperen egutegia

Kaixo, irakurle!

Urtea bukatzeaz den honetan, aurten ere egutegi bat oparitu nahi dizugu urtarrileko zenbakian. Beti egin ohi dugun moduan, zure laguntza behar dugu horretarako, zuek ateratako argazkiekin edertu nahi baitugu egutegia! laz, ura izan genuen protagonista, eta, aurten, berriz, honako gai hau aukeratu dugu: zuen **MASKOTAK** ezagutu nahi ditugu, hainbeste maite dituzuen animalia kuttunak.

Bidali etxe barruan edota kanpoan dituzuen maskotak, izan txikiak ala handiak: txakurrak, katuak, txoriak, behorrak, behiak, astoak... Edozein animalia izan daiteke. Zuek ere ager zaitezkete argazkian, noski! Jasotzen ditugun argazkien artean, batzuk aukeratu eta egutegi polit bat osatuko dugu, zuen denon etxeetan jar dezazuen.

Abenduaren 23ra arteko epea duzue argazkiak bidaltzeko, helbide honetara: mailope@labrit.net

Eskerrik asko zuen konpromisoagatik!

